

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Basabe Kortabarría Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **AGERRALDI ESKARIA** egiten dio **Rodolfo Ares Taboada** Herrizaingo sailburuari, “**29ko greba orokorrean Ertzaintzak izandako jarrerari**” buruz azalpenak eman ditzan **Erakunde, Herrizaingo eta Justizia batzordearen aurrean, URGENTZIAZKO PROZEDURAZ**

ZIOA

Ekainaren 29an deitutako greba orokorrarekin bat eginez, ugariak izan ziren langileek egin zituzten protesta ekitaldiak. Horietako batzuetan, Ertzaintzak jarrera oldarkorra izan zuen eta horren adibide da Gasteizko merkatal zentro handi baten atarian gertatutakoa. Hainbat komunikabidek publiko egindako irudietan ikus daitekeenez, merkatal guneko atarian protesta baketsua egiten ari ziren pertsonen kontra oldartu ziren hainbat ertzain, bertan zirenak kolpatuz, lurrera botaz eta lepotik helduta eramanez.

Hori dela eta, hurrengo agerraldi eskaria egiten dio Rodolfo Ares Taboadari:

AGERRALDI ESKARIA

Erakunde, Herrizaingo eta Justizia batzorde aurrean ager dadila, ekainaren 29ko greba orokorrean Ertzaintzak protestan ari ziren langileen kontrako erabilitako indarkeria zertara zetorren argitzera.

URGENTZIAZKO ARRAZOITZEA

Kontuan izanik, bilkura-aldia amaitua dagoela, baina gertaeren larritasuna ikusita, ezinbesteko deritzogu Herrizaingo sailburuak azalpenak ematea Eusko Legebiltzarrean, eta horretarako batzorde egun bat gaitu beharko balitz, hala egitea eskatzen diogu Mahaiari.

Gasteizen, 2010eko ekainaren 30ean

Mikel Basabe Kortabarría
Aralar taldeko legebiltzarkidea